

BIZKAIKO BURDIN MEATZARITZAREN OHIZKO ANTOLAKUNDE SOZIALA: 1843.eko MATXINADA

Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga

(Bizkaiko Irakaslegoaren Unibertsital Eskola - Euskal Herriko Unibertsitatea)

Meategiak Bizkaiko egitura produktiboan eta XIX mendean zehar, gero eta garrantzi haundiagoa hartuz zihoazen. Ez zen gutxiagorako ere, zeren eta ikatza eta burdina izango baitziren hain zuzen ere lehen iraultza industrialaren zutabe biak.

Baina mea eskuratzea eta meategien jabetza ez da beti modu berdinez ez burutu ez izan. Hemen nola aldatu zen meatzaritzaren antolakundea, mea eskuratzeak erak, nortzuk jabetu ziren burdina meategiez, zergatik, eta zer nolako gatazkak eta ondorio sozialak gertatu ziren prozesu eta bilakaera honetan, azaltzen saiatuko naiz.

1. Ohizko egitura meategien jabetzan eta mea eskuratzeak moduan.

Europako beste meatokietan bezala, Enkarterrietako burdina meategietan *free mining* edo oztopo gabeko mea eskuratzea aurkitzen dugu (1). Badirudi eskubide hau Enkarterrietako biztanle mugaturik zegoela. Honela, Abellanedako batzarrea behin baino gehiagotan argitzen saiatu zen Enkarterritarrek soilik zutela meategietan lan egiteko eskubidea (2). Ez hori bakarrik, XVIII mendean Somorrostroko zazpi kontzejuetako biztanleek, beraiek baino ez zutela eskubide hori, ezarri nahi zuten, zeren eta Muñatonesko Salazar jaunari XV mendean erosi bait zizkieten Trianoko mendiak (3).

Hau honela, 173 lan Abellanedako batzarkideek, enkarterritar guztien eskubidea zela,

erabaki zuten, baina bestalde Gernikako batzarkideek, gero eta interes gehiago somatzen zutenez gero mearen negozioan, esku hartu nahiean arazoan hasi ziren eta lortu ere bai erretaginduez baliaturik. 1782an Barakaldotarrak irabazi zuten, meategietan askatasun osoz lan egiteko eskubidea (4).

Gauzak honela 1799.eko abuztuaren 31an Somorrostroko ibarreko zazpi kontzejuek onartu zuten, Karrantza, Gordexolarekin bat, Bizkaiko erakunde egituretan sartzea eta Gernikako batzarrean parte hartzea. Sinatu zuten itunean, laugarren artikuluan, meategiei buruzko arazo guztietan Bizkaiko batzar orokorrak izango zuela ahalmen osoa, aipatzen zen. (5)

Beraz XIX mendeko hasieran gainerako bizkaitar orok irabazten du meategietan aritzeko eskubidea mea ateratzen.

Meategietako lan antolakundea ezagutzeko, 1782.an Trianoko mendiak bisitatu ondoren F. Elhuyarrek burutu zuen txostenean, Sociedad Bascongada de Amigos del País delakoaren aginduz, hainbat ohar jakingarri aurkitzen dugu (6). Meategietan aritzen zirenak gehienak produktore autonomoak ziren. Hiru lau edo bosten artean talde bat osotu eta mea ateratzeari ekiten zioten. Egunean lau ordu lan eginez, zaldiak menditik itsas edo ibai ondoko portura (Mus-kiz, Galindo, Ugarte, Kauso) egiten zituzten goizeko eta arratsaldeko bidaiak betetzeko beste ateratzen zuten. Jakina talde bakoitzak ahal zuen lekutik jotzen zuen, lur barrua zulatuz,

(1) DOBB M: *Estudios sobre el desarrollo del capitalismo*. Buenos Aires. 1976, 289 orr.

(2) ESCARZAGA Eduardo: *Avellaneda y la Junta General de las Encartaciones*. Bilbao (Imp. E. Verdes) 1927, 127-130 orr.

(3) «Solo los vezinos y moradores de estos siete Conzejos son dueños de dichos montes . . . sin que vezino alguno de otra Anteiglesia pueda ni deva entrar ha ganar venera sacarla ni comprarla por ser y tenerse por vienes troncales de dicho vezinos.... » «Información de propiedad y libertad que tenían los siete concejos del valle de Somorrostro para sacar libremente las venas de sus montes mancomunados de Triano» 23 de Junio 1714

Bizkaiko Diputazioko Artxiboan: D-36

Bizkaiko Jaurreriko Artxibo Nagusia. Gernikan. Minería. 1 Erreg.: «Facultad real de los 7 concejos sobre jurisdicción prebostad de resulta del pleito con Salazar Muñatones».

MADOZ P: *Diccionario geográfico estadístico histórico de España y sus posesiones de ultramar*. T. XV. Madrid 1849, 464 orr.

(4) B.J.A.N. Gernikan: Ferrerías, 2 Erreg., 1 legajoa.

(5) «El Señorío en su Junta General o de Merindades ha de dar las providencias generales y ha de establecer las reglas y ordenanzas que estime convenientes sobre minerales de las Venas, en cuanto a la visita de ellas, modo de abrir las minas y de beneficiarlas . . . » Junta General de Merindades de 13 de Agosto de 1799.

B.J.A.N. Gernikan: Venas, 4 Erreg.

(6) ELHUYAR F.: «Estado de las minas de Somorrostro» *Resumen de actas de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País en sus Juntas Generales celebradas en la ciudad de Vitoria por Setiembre de 1785*. Vitoria 1783, 102 orr.

horrela nahiko arriskutsua bihurtzen zelarik lan hau. Beraz meategi jakin batzuen baino sator lanen itxura haundiago zuten. Langile bakoitzak 14-16 kintale apurtzen zuen egunean eta jornalariak bost erreal irabazten zituen, eguneko zortzi erreal produzitzen zuelarik. Kontutan izanik langileen tresnak, idien bazka eta abar, meategietan irabazi gutxi lortzen zela salatuko zuen F. Elhuyarrek. Mearen merkatariak aldiz, salerosketaren bidez, franko ongi irabazten ateratzen ziren. F. Elhuyarrek proposatu zuen ondorengo alternatiba hau: Enpresa haundi bat sortu, bertako udalen ardurapean eta mea erauzketa modu egoki batez planifikatu meategi eredu bati dagokionez, langileei lau orduren orde zortzi ordu lan egin araziz, alokairu berdinen truke.

Lana eta gizartea modu berri eta, XVIII menderako, aitzindari batez antolatzeko proposamenaren aurrean gaude, non produktibitatea eta irabazi ekonomikoa ardatz berriak bihurtuko dira. Hau da, erlazio sozial kapitalistak indartu eta nagusitu nahi lituzke, Trianoko meatzaritzan kapitalista produkzio moduaren errazionaltasuna gihartuz eta produktore autonomoen errazionaltasun produktiboa deseginez

Egoerak bertan behera ezertan aldatu gabe jarraituko zuen, baina esandakoak alferrik ez ziren idatzi.

Clemente Uriostek, F. Elhuyarren txostena ezagutzen zuen eta berriz ere salatzen ditu mea eskuratzeko sistemak, 1814.eko Gernikako batzar nagusietan esanez «más parecen sus escabaciones cuevas de conejo o de otros animales que verdaderas minas» (7). Edonork, inolako neurri gabe, ireki zezakeen zuloren bat, bost braza (8,36 m).ko unea bata bestetik utziz gero Zirkulu bat burutzen zen, 219m2.koa eta meatzaritza lanak sakonerantz zulotu beharrean, alborantz jarraitzen ziren. Kasu gutxi jaso ondoren, azkenean 1816.eko batzar nagusietan batzorde bat izendatu zen arazoa ganoraz aztertzeko eta 1818.eko uztaileko batzar nagusian arautegi bat aurkeztu eta onartu zen meategietako lanak eta arazoak arautuz.

2. -Meategietako arautegiak: Projektu sozial ezberdinen islada.

XIX mendea esan dezakegu arautegien mendea dugula, arazo publiko guztiak arau jakin batzuetara makurtu arazi nahi dira, aldi berriaren beste aztarna bat. 1818.eko uztaileko

batzarre nagusian aukeztu eta onartu zen arautegiaren pundurik eztabadagarrienak, ondoren erakarri zituen kritiken arabera, honako hauek ditugu: Lehen artikuluan meategiaren luze zabal haunditu egiten du, guztira 20 braza behar zituelarik (8). Aurrerantzean inork ezin izango du meategi bat baino gehiago landu, baina onartzen da dagoeneko egoera. Beraz baten batzuek bat baino gehiago lantzen zuten. Bestal de maiatzetik irailaren 30 arte bakarrik lan egin daiteke meategietan. Udaletako alkateek nolabaiteko erantzukizun judizialak izango zizuten mea arazoetako gatazketan.

Baina arautegi honek izugarrizko kritikak jasan zituen, bai Barakaldoko ordezkariaren aldetik eta batez ere Manuel Oleagak buruturik (9). Seguru asko azken hau, delako mearen merkatarietarikoa bat genuen. Bere ustez artikulurik arbuigarriena, hamazazpigarrena zen, lan aldia mugatzen zuena hain zuzen ere. Ohi-turaz, maiatza aurretik meategiak prestatzen hasten eta urriaren bukaerarte irauten zutela, zioen. Baina lege berriarekin, mea garestitu baino ez litzatekela egingo burdingintzaren hondamendia sakonduz. Orain arte askatasun guztiz lan egin bada, aurrerantzean zergatik jarraitu ez modu berdinean, galdetzen zuen M. Oleagak, Sestaon une berean «alcalde de billetes» delakoa zena.

Jakina puntu honetan jokaera eta ikuspuntu nagusi bi kontrajartzen ziren: Alde bate-tik ekintza ekonomikoa, kasu honetan meatzaritza arautu nahi zuena, desberdintasunak austuz, gehiengoaren interesak zaintzen. Adibidez gure arazoan produktore txiki eta autonomoarenak hain zuzen ere. Bestetik ekintza produktiboak arautzeko berezko legeak barnetik dariela sinesten dutenenak eta berez askatasun osoan utzi behar direla arazo ekonomikoak bere kabuzko bidea egiten.

Dena dela, 1818.eko azaroan berriz ospatu zen batzar nagusian, uztailean erabaki zen arautegia baztertzea erabaki zen, betiko tradizioara itzuli behar zenaren aitzakiaz. Hau da ikuspuntu liberala nagusitu zen (10).

3.-1820-1830 hamarkada: Aldakuntzak gihartzen eta nagusitzen doaz.

Hamarkada honetan meatzaritzaren arazoak neurri beretan nabari ditugu hasiera bate-tan. Ramon Gil de la Cuadrak 1821an Bizkaiko meategiak zulo txar batzu baino ez zirela berriz

(7) *Juntas Generales del M.N. y M.L. Señorío de Vizcaya. 1 al 10 de Septiembre de 1814*. Bilbao (Imp. San Martin) 1814, 1400 orr.

(8) *Juntas Generales del M.N. y M. L.... Julio* Bilbao 1818.23 orr. eta urrengokoak.

(9) B.J.A.N. Gernikan, «Observaciones que hace el alcalde de billetes al reglamento» Ferrerías, 2 Erreg. 1 legaj., 1 zenb.

ere adieraziko zuen (11) Bestalde irakurri besterik ez dago beranduago, 1827an Gregorio González Azaolak idatzi zuen txosten argitsua Bizkaiko Diputazioaren aginduz (12) Ezagunak ditugun kritikak egin ondoren, erakutsi nahi du, irabaziak «tratantes de venas» delako horiek lortzen dituztela soil soilik (13) eta beraz enpresa haundi bat eraiki behar zela, meagizon kapitalisten elkarte sortuz, mea erauzketak arrazionalizatzeko eta produktibitatean sakontzeko. Era berean proposatu zuen, garraioa merkatzeko, «burdinbide» baten eraikitzea, lan honek eragingo zuelakoan nahiko larri baitzebil olen produkzioa. Esandakoak gero ikusiko dugunez alperrik ez ziren izan. Baina hamarkada honetan, beste fenomeno sozial bat azpimarratzekoa dugu: Zenbait merkatari, kapitala inbertitzen hasten dira meategien bilaketetan ondoren mea ateratzeko alegia. Adibidez Jose Txabarriren kasua dugu (14). 1818-1825 bitartean 80.000 erreale inbertitu zuela, idatzi zuen eta azkenean meategia aurkitu Jarrozuela izeneko tokian. Badirudi, meategiak dirua irabazteko eta zuten kapitala berproduzitzeko aukeratzat azaltzen zitzaizela.

Bestalde 1825an, erresumako gobernuak meatzaritzaz legedi eta arautegi berri bat argitaratu zuen F. Elhuyarren eritzietan oinarriturik (15) 1827.eko urtean ospatu ziren batzar nagusietan, legedi honen kontra zenbait pundutan aipaturiko batzarreak erabaki zuen eta antzeko baina bestalde desberdin bat onartu zen. Ez zuten onesten meategiak erregerenak izan litezkeenik, ez eta erresumako ordezkari-

rik sartzerik meatzaritzaren arazoetan, Diputazioak botere osoa bait zuen hesparru honetan, Esaterako oraindik aurrera 1827an Gernikan onarturiko arautegiaren arabera meategia erregistratu behar zen, Diputazioak ireki zuen liburu berrian. Baina kurioski ez da deus esaten lan aldiak noiztik noizera izan beharko ziren, hainbat eztabaida sortu ondoren 1818an eta 1843an ere arazotariko bat izanik.

Aire berriak sartzen doaz ikusten dugunez meatokietan Meatzari eta mearen merkatari nagusienetarikoei Ybarra Mier eta Konpañia 1827an sortu zuten, mea erauzketa arrazionalizatuz kriterio kapitalistaz eta arautegiak konpañiei eskeintzen zizkieten abantailaz jabetzeko. (16) Merkatarien interesak nagusitzen doaz, egitura tradizionalak desegiten daudelarik, produktore zuzena txiki eta autonomoaren kaltetan. Egoera berri honen nagusiagoa eta aldakuntza sozial hau 1827.eko arautegiari egin zien sarreran, adierazi zuten argi eta garbi Diputatu ohiak zirenek urte horretan, Valdespinako markesa eta Pedro Novia de Salcedo, M.A. Inunziaga lehen sindikoa zenarekin batera (17) Urte batzugarrenean altxamendu karlistaren buruak izango ziren eta nire ustez sarrera hau antolajikoa dugu garaiko proiektu sozial ezberdinen tirabira ezagutzeko eta ulertzeko.

Kontraesanak agiri agirian daude, gatazkak badirudi agirian eta sarritan gertatzen direla eta guk orain 1843an gertatu zena aztertuko dugu, zazpi urteko gerra zibil eta ireki baten ostean.

- (10) M. BASTERRAK esaten du, 1818.eko arautegia lege ezarri zela, baina ez da eritzi zuzena, 1818.eko azaroan batzar nagusiak aurreko erabakia ezabatu baitzuen.
BASTERRA M: *Vizcaya minera*. Bilbao (Casa de la Misericordia) 70-71 orrk.
Juntas generales de M. N... Noviembre. Bilbao 1818, 22 orr.
- (11) MADOZ P.: *Diccionario geográfico- estadístico...* T. XV Madrid 1849, 465 orr.
- (12) B.J.A.N. Gernika: «Sobre minas de fierro de Somorrostro propias del M.N. Señorío de Vizcaya» Santander 1827 (Eskui-kribua) Ferrerías, 2 Erreg., 3 leg., 8 zenbak.
- (13) Hauek dira mearen merkatariak gailenak G. Gonzalez Azaolaren aritziz:
Bilbotarrak: N. Ybarra, Maximo Unzaga, Jose Ogara, Manuel Asarola.
Portugaletearrak: Francisco Toba, Jose Aqueche, Bonifacio Vildosola, Jose Francisco Uriosti, Jose Mier, Jose Echevarri.
Somorrostotarrak: Jose Antonio Llano, Antonio M. Llano, Nicolas de la Sota.
Santurtziarrak: N. Celada, Manuel Galindez.
Sestaotarrera: Ramon Lezama.
Garrantzitsuenak hauexek: Ybarra, Mier, Echevarri eta Llano.
- (14) B.J.A.N. Gernika: Ferrerías, 2 Erreg., 1 leg., 1 zenb.
- (15) *Instrucción provisional para el gobierno de la minería precedida de los Reales Decretos que se refieren a sus disposiciones*. Madrid (Imprenta Real) 1826.
P. Alzola ustez 1825an erresumako legedi hau ezarri zen Bizkaian. baina ikusiko dugunez ez da egia. ALZOLA P.: *Progreso industrial de Vizcaya* Bilbao 1902, 74 orr.
- (16) Konpañia bat sortu zen, 6 urteren buruan mearen salerosketan aritzeko, Ybarra, Mier eta Konpañia izenpan, meagizon edo hobe esan mearen merkatari hauek osaturik: Jose Antonio Mier, Jose Antonio Ybarra y de los Santos, Nicolas María Llano, Jose Echevarri, merkatari nagusiak hain zuzen ere.
Altos Hornos de Vizcaya. Sociedad Anónima. Libro del Cincuentenario. Bilbao 1952, 35 orr.
- (17) «... desordenes que sobretender a la monopolización de este ramo exponiendo a los continuos ataques del poder y del dinero al descubridor y trabajador industrioso, desquicia los trabajos los precipita, ha originado un continuo germen de litigios y causado muchas desgracias en los operarios ...»
Juntas Generales... Bilbao 1827, 20 orr.

4.-1843.eko gatazka: Gertaerak

Bergarako ituna prozesu luze baten bukaera bezala ulertu behar dugu eta ez gerra edo arazo isolatu bat lege. Erresumako botereak gero eta eragin nabarmenagoa bilatzen zeuden, Bizkaiko lurrian erresumako lege nagusiak ezartzeko, gihartu arazteko bizkaitar gizartean, lehenago Fernando VIIren absolutistaren eskutik, gero Isabel IIren liberalen maki-latik.

Meatzaritzari dagokionez, L. Aldanak dio, 1841.eko bukaeran beraz Esparteroren dekretoren ondoren, sartu edo ezarri zela erresumako meatzaritzako legedia (18). Baina R. Amar de la Torre diozkunentz, 1843.an Bizkaiko «jefe superior político» delakoak ezarri nahi zuela legedia, baina ezin bete arazi (19) Bestalde 1842.eko ekainaren 21an, lehen meategia erregistratzen da Bizkaiko «Gobierno político e inspección de minas» delakoan (20) Dena dela R.Amar de la Torre, idatzi zuen bezala «no dejarán de ofrecer obstáculos si algún día se trata de regularizar el sistema de laboreo» (21).

1847.eko urtean Bizkaian 36 meategi zeuden lanean guztira 1169 pertsonekin eta 834 zamabere eta gurtabere (22) L. Aldanak berriz guztira 1718 langile zirela dio (23).

Laneko ohiturei buruz, 8.etan iristen dira meatzariak. Taloa eta urdia jan ondoren lanean hasten dira, eta 12.etan berriz jateko berdina. Ondoren siesta. Uztailaren bukaeran batzuek garizko ogi zuria dakarte makailu eta sardina

freskuez batera. Ordu bietan berriz lana. Guztira 5 edo 6 ordu. Urtean 150 egunetan lan egiten da, Maiatzatik Urrira, nahiz eta L. Aldanak berak adierazi, itsasontziak apiriletik azaroarte kargatzen zirela burdin meaz (24). Sarritan gertatzen ziren nolabaiteko ezbeharrak. Oraindik, azaldu dugun egitura tradizionalaren arabera, lau bosten artean talde bat osotzen zuten askok, mea ateratzeko, konpañia batzu eta meatzari kapitalistak egon arren. Meatzari langile on batek 15 kintale edo ateratzen ohi zituen. Mea portuetara eramateko zaldiak eta idiak erabiltzen ziren, baina bedekaturik zuten, bidaia bi baino egiterik ez eta hiru zaldieria edo gurdi bat baino eukitzerik (25).

Azken arazo hau zela eta, gatazkak sortu ziren. Somorrostroko hiru kontzejuek (Santurtzi, Frapaga, Sestao) 1840an batzarre nagusi batetan debekatu zuten, neguan mea garraio-tzea (26). Ohiturak aldatzen zeudenaren adierazle garbia dugu, eta ez da harritzekoa ba batzuek erresumako legedia inposatzearen al de egotea.

Gauzak honela, 1843.eko uztailaren 3an jendetza bat, kuadriletan banaturik Trapaga eta Ortuellan, meaz beterik zeuden gurdiak iraultzen hasi zen. Trapagako alkateak baretu nahi zituen erreboltairen animoak, baina alde-rantziz gertatu zitzaion, haiek laban eta guzti aurre egin bait zioten. Urrengo egunean berdin, eta Uztailaren bostean, bost gurdiri su eman zioten. Bestalde presoak gartzelatatik askatzen ihardun zuten eta Trapagan agintari

(18) ALDANA Lucas: «Descripción de la mina de hierro Friano (sic) en Somorrostro, con un apéndice sobre los demás criaderos de este metal en Vizcaya» *Revista Minera, periódico científico e industrial redactado por una Sociedad de ingenieros*. Madrid (Imprenta Viuda de Don Antonio Yepes) 1851, 309 orr.

(19) «Según me dijeron hacía cosa de tres meses que el jefe superior de la provincia trató de poner en ejecución la ley vigente de minería, pero no pudo conseguirlo, porque acostumbrados aquellos mineros a abrir sus boca-minas a muy corta distancia unas de otras, les pareció excesiva el área que constituye una pertenencia, y sólo convinieron en fijar la distancia de 50 pies de boca a boca..»

AMAR DE LA TORRE Rafael: «Algunas noticias sobre las minas de hierro de Somor-Rostro» *Boletín oficial de minas*, n.º 5, 1 de Julio de 1844, 51 orr.

(20) *Boletín Oficial de la provincia de Vizcaya*, 78 zenb., 1842.eko aztailak 29.

(21) AMAR DE LA TORRE R.: *op. cit.* 51 orr.

(22) CAVANILLES R.: *Gaceta de Madrid*. 1848.eko ekainak 12.

(23) ALDANA L.: *op. cit.*, 569 orr.

(24) *Ibidem*. 369orr. eta urreagokoak.

(25) «... la práctica establecida sólo permite a una mina que emplee para el transporte de la vena tres caballerías mayores o un carro; pero en ninguno de los dos casos pueden hacer sino dos viajes diario ...»
AMAR DE LA TORRE R.: *op. cit.*, 52 orr.

(26) B. J. A. N., Gernikan, Caminos de veneras, 1 Err., 2 leg., 3 zenb.

(27) «... y no se limitaban al corto y reducido número que se les antojó señalar a fin decían de que aquella primera materia que hoy se halla escasa y cara tubiese todavía mucho más de precio . . . han coartado la libertad a la industria y aplicación...» 1843.eko uztailaren 12 an, Trapaga eta Barakaldoko garraiariak gutxienez hamabostek, izenpeturiko izkribuan, esaten dute matxinoen kontra.
B.J.A.N., Gernikan, Caminos de veneras, 1 Err., 2 leg., 3 zenb.

(28) «... y aun quemando publicamente bastas y carros, y obrando por si y ante si, sin dar otra causa ni razón que la ridicula de que si se vaja mucha bena vajará también esta de precio . . . » Sestao, Santurtzi, Trapaga eta Barakaldoko alkate konstituzionalak 1843.eko uztailaren 7 an idatzia.
Ibidem.

berria izendatzen saiatu ziren. Era berean, mehatxatu zituzten meategien jabeak eta hil egingo zituztela abereak modu berdinez lanean jaraitzekotan bazeuden, beraien usteko ohitu razko legea gutietsiz (27).

Matxinoen azken helburuak ziren: Mearen erauzketa mugatu eta era berdinean garraioak mugatu. Bestela, sistema tradizionalan ari-zen zirenak, lan gehiago egin beharrean aurkitzen bait ziren, zeren produkzioaren emendioak, pisuko mearen balioa jaitsi arazten baitzuen (28).

Gertaera honetan, jendetzak jarraitu zituen arauak eta konportamenduak, garai pre-industrialean jazotzen ziren matxinadetakoa dugu bete betean: Ekintza zuzena, apurketak eginez, jabegoen kontra, berezko «justizi naturala» ohituran eta tradizioan oinarriturikoa ezarri nahia. Kasu honetan sua, Ingalaterrako matxinoen metodoa, hemen ere erabiltzen da (29).

5. -Zenbait gogoeta: Aldi zahar eta berriaren etena.

Gatazka honen zergatietan arakatzeko, azaldu dugun bilakaeratik aparte, kontura gaitzen zein egunetan gertatzen den, hain zuzen ere, Esparterok gobernua galtzen duen egunetan eta. Bizkaian «Junta de Gobierno de Vizcaya» delako bat ezarri zenean (30). Delako Junta honen programan zera azaltzen zen, foruei zetxekien sistemaren berritzultze osoa. Ez da beraz harritzekoa, zenbait meatzarik koiuntura hau aprobetxatzea meatokietan ere ohitura tradizionalen ildora itzul arazteko. Egoera politikoak, detonadore bezala jokatu zuen zihur asko.

Bestalde errebolitariak edo matxinoak beldur ziren mearen prezioa asko jaitziko ote zen, mea erauzketaren emendioa ikusirik. Ba-

dirudi matxino gehienak meatzari autonomoak zirela, produktore zuzen txikiak, Sestao, Santurtzi, Trapaga eta Barakaldoko alkateek Uztailearen 7.ko izkribuan honela esaten zuten... Como si estuviera en manos de tales sugetos poner trabas a la libertad y a la industria . . (31).

Agirian daude ba bi pentsamolde eta proiektu desberdin; jendetzaren ekonomia moralean oinarritu nahi zutenena eta beste, liberal jarreraren ikuspegikoa, azken batetan nagusigoa lorturik zuten taldeen alde, meategiak langileen bidez eta muga gabe mea erauzketan saiatzen zirenak.

Matxinoek nahi izan zuten, arazoa legez konpontzea, hiru kontzejuen artean batzarre bat burutu eta han erabakitzen zena onartu. Azkenean tirabira askoren ondoren ospatu zen batzarrea. Clemente Uriostek onartzen zuen batzarrearen erabakia baina orientarritzat baino ez zeren azken onespina goiko erakundak eman behar baitzuen, Bizkaiko batzar nagusiak. Gizon honen izkribuetan nabari da bizi zen kontraesana, argi eta garbi baitzeukan jokabide liberala zela desberdintasunaren iturria eta horregatik premiazkotzat jotzen zuen nolabaiteko araudia gihartzen zegoen desberdintasunaren aurka (32).

Hiru kontzejuetako batzarrean batzorde bat izendatu zen arazoa aztertzeko eta proposamen bat burutzeko. Batzordeko kideen artean matxinoen buruzagi ziren etarikoak agiri dira, eta militar bat Castor Andetxaga (33) Azken honek Diputazio berriari kontseilua eskatu zion, ea nork epaitu behar zituen gertaerak, Balmasedako juez berriak edo tradizioari ego- kituz herriko alkateak, eta Ariz litzentziaturaren eskutik Diputazioak erantzun zion, delako batzarreak ez zuela inolako ahalmenik horrelako erabakiak hartzeko eta debekatu egin zuen aurrerantzean gai hortaz batzarrerik ospatzea. Bestalde 1841.eko Urriaren 29a baino lehenagoko egoerara bihurtu arren, Balmasedako

(29) RUDEG G.: *La multitud en la historia. Los disturbios populares en Francia e Inglaterra. 1730-1848*. Madrid 1978, 246-249 orr.

(30) Justamente cuando V.E. se instalaba y Bilbao se entregaba al jubilo el día 1.0 del corriente, se vieron los exponentes que se dedican al honrado y útil trasportes de venas desde las minas a los puertos embarcaderos de Galindo y Ugarte, llenos de pavor atacados y estropeados por una multitud gavillada...»
Ibidem.

(31) *Ibidem*.

(32)...de una manera que sin atacar de lleno la libertad e industria de los tratantes y fabricas de hierro de este país y de la nación entera se hagan conciliables sus intereses con los estatutos establecidos y la conveniencia publica.. » Portugaleteko «Alcalde de vileros» zenak, Klemente Uriostek, idatzi zuen. Jokabide bien artean zubi bat burutu nahi du, baina dagoeneko ezina zen.
Ibidem.

(33) Batzorde partaideak hauek ziren: Manuel Aretxabaleta eta Migel Allende, matxinoen buruzagiak hain zuzen ere. Eastor Andetxaga, brigadierra, Jose Balparde «Sindico procurador», M. Arétxabaleta «Sindico prior». Azken honek «konprenitu» egin zituen gertaerak, ados egon ez arren.
Ibidem.

juezak baino ez zuela epaitzeko ahalmena. Beraz, Diputazio berriak askatasun osoa erabili behar zela agindu zuen, mea garraiotzeko gurdietan zein zaldierietan, betiko tradizioari dagokionez (34). Dakusagunez, liberal jokabidea onartu zuen foruzale bezala azaldu zen Diputazio provisional berria, tradizioaren ikuspegi partzial baten justifikazioz. Erakunde provisional honen diputatu bat M. Yzagirre zen, Zornotzan garai batetan, gerra aurrean behintzat, ola bi alogeran harturik zuena, beraz mea arazoe-tan arduraturik eta seguru asko mearen prezioa garestitutuko ote zenaren beldur, aukera liberala onartu ezean.

Gatazka hau, aurkitu dugun dokumentazioaren arabera honela bukatu zen.

Gure ustez aldakuntza sakon baten expone-n nabaria dugu. Aldi zahar bat bukatzen da eta aldi berna sortzen dela esan genezake, meatzaritzan. Aintzineko ekonomia morala, desagertu egiten da meatzaritzatik eta orde-z ekonomia politika liberala, produkzio modu eta erlazio kapitalistak erakarriko duena nagusi-tzen hasten da. Erresumako legeak sartuz joan-go dira. 1850an nahiko ezarriak egongo dira (35) Guzti hau Diputazioaren onarpenarekin, batzar nagusietan protestak egon arren (36) Meatzari produktore zuzenak desagertzen, langilego proletari bat emendatzen eta mearen merkataria orain nagusi bihurtzen dira, gero eta gehiago meategiak eskuratzen.

Bakarrik faltako dira kanpoko baldintzak, irabaziak emendatzeko eta kapital metatze haundia lortzeko. 1849 eta 1863 jarri ohi dira fetxa giltzarri bezala (37) meatzaritzaren bila-kaeran beharbada ikuspundu kuantitatiboetan edo lege batzuen baldintzetan oinarriturik. Baina ikuspundu sozial kualitatibo batetik, azaldutakoaren arabera, 1843 ezarri genezake,

aldakuntza sakonaren giltzarri fetxa bezala, ondoren 1877-1880 urteetan ematen direlarik mea erauzketa haundien garaia, mota guztietako mearena. Tarteko urteetan baldintza berrie-tan oinarriturik ildoan lantzen joango da eta giro sozial berria indartzen. Frantziara esportatzen zena 1849z geroztik hemen funditzen zena baino gutxiagoa zen, erauzketaren 35% (38).

Beraz 1840-1860 urte tartean burutu egin-go da mende hasieratik gihartzen zegoen feno-menoa: Lan indarra eta produkzio bideen jabe-goaren, meategien jabe go orokorraren, arteko tirabira eta etena, kapitalaren metatze izuga-rriren iturburua suposatuko duena, kapitalista erlazio sozialetan oinarriturik.

SINTESIS:

La organización social tradicional de la minería del hierro en Vizcaya: El conflicto de 1843.

Las minas de hierro ubicadas en los mon-tes de Triano han sido tradicionalmente explo-tadas en régimen de libertad por los habitantes del valle de Somorrostro, lo cual generaría la constitución de una sociedad de pequeños pro-ductores autónomos siendo los «tratantes de venas» los principales beneficiarios.

Desde el siglo XVIII se proponen diversos proyectos, unos fundados en criterios capitalis-tas, otros guiados por los intereses de los pe-queños grupos que las explotaban directamen-te, con el fin de establecer un nuevo modelo de explotación.

En 1843 se desarrolló un conflicto con enfrentamiento abierto, en el que emergen los intereses de los grupos sociales contrapuestos con proyectos diferentes, para que finalmente, con la sanción de la nuevamente constituida

(34) ... ni tampoco el que se altere en lo más mínimo el uso y franquicia observada hasta ahora de conducir libremente el mi-neral de vena en carros y caballerías a los puertos de Galindo y Ugarte . . . Diputazioak sinatua Bilbon 1843.eko abustua-ren 12an.

Ibidem.

(35) «... Hoy se designan ya a cada pertenencia las 20.000 varas que prescribe la ley, y se advierte más orden en las labores; pero no sin cierta repugnancia de los naturales, avezados a proceder sin trabas, y todavía sometidos generalmente a las influencias del habito, y a la ciega rutina, robustecida por la tradición y el ejemplo».

Memoria presentada al Excmo. Señor ministro del Comercio instrucción y obras públicas por la Junta Calificadora de los productos de la industria española reunidos en la exposición publica de 1850. Madrid (Establec. tipográfico) 1851, 132 orr.

(36) *Juntas Generales...* 1848, 1850, 1860, 1864... Urte hauetan, hiru eta lau kontzejuetako ordezkariak meatzaritzaren lege-diaren aldakuntza erabakitzea eskatuko dute, berriz betiko sistema tradizionalera bihurtzeko.

(37) 1863.eko urtea giltzarri ikusten dutenek: «... hasta que en 1863 se abolio el impuesto...») MANE y FLAQUER M: *El oasis. Viaje al País de los Fueros.* Barcelona (Imp. J.J. Regiralta) 1880, T. III, 424 orr.

Berdin: GONZALEZ PORTILLA M.: «El mineral de hierro español (1870- 1914): su contribución al crecimiento económico ingles y a la formación del capitalismo vasco» *Estudios de historia social. Revista del Instituto de estudios laborales y seguridad social*, n.º 1. Madrid 1977. 55-56 orr.

1849an jartzen dutenek: BILBAO L. M., FERNANDEZ DE PINEDO E.: « Auge y crisis de la siderometalurgia tradicional en el País Vasco (1700- 1850). *La economía española al final del Antiguo Régimen. II Manufacturas.* Edic. e introducción de Pedro Tedde. Madrid 1982, 202 orr.

(38) GOENAGA I.: «Memoria del estado de la industria minera en el distrito de Vizcaya» *Revista científica del Ministerio de Fomento* T.I, Madrid (Oficina tipográfica del Hospicio) 1862, 469-470 orr.

Diputación Foral, se extienda la legislación del Reino y los criterios liberales que permitirán el

afianzamiento de la organización social fundados en los criterios de racionalidad capitalista.